

Aiherra Herria du 7 juillet 11

Aiherrako pesten ondotik - Berriki iragan herriko pesten ondotik, lehen lehenik eskertu behar ditugu



Zikiro pestan, jendea alai

pesta komiteko gazteak, holako egitarau edo programa pollita xutik ezarririk. Aurtengo pestak 2 asteondarretan antolatuta dituzte, Korsikar eta Euskaldunen arteko kantaldi batekin hasirik eta zoin ederki. Hau xoragarria izan da eta orroitgarria geldituko da adin zuzietako ikusleen gogoetan. Zurrumuru batzuek diote, l'ARCUSGI taldekoek berri izuli beharko luketela Aiherrara... MOSKORRI taldekoek ere lehen gaualdiaren bururatzeko bazterrak harrotu di-

tuzte. Dudarik gabe, goiti ari den talde bat dugu hau.

Bigarren asteondarrean, Hazparneko pestekin betan gertatzen ziren 4 egunetan izan da mogimendu, batez ere larunbat arratseko zikiro pestan, horrat ere hurbildu baitira 550 bat afaltiar. Gaineratikoarentzat ez gira xehetasunetan sartuko. Hala ere animalako beroa egin dela igandearekin, eta junior artekoen mailan, esku huskako finalerdiak 2 oren pasa iraun duela azpimarratuko dugu, senperrak tanto xoil batez amikuztarrei nagusituz. Ostatuetan ere, aingira apairuek izan dute arrakasta. Birla haizadetan, J- Marie Haristoy xapeldun atera da, eta xapeldun ordea Xarlo Haristoy anaia. Horra beraz aurtengo bestak bururatuak. Aupa helduden urtekoak !! eta biba gazteria !!

Aiherra Herria du 14 juillet 11

Heriotze : Katixa Oyhenart

Bidarteko Katixa Oyhenart etxekandere xaharra zendu da 93 urte zituelarik. Azken astetan arras ahuldua baldin bazen ere, beti burua xuxen atxiki du, familiako harat hunat guziak segitzen zituelarik. Bidartean sortua, Bidartean hil da, etxekoz ontsa inguraturik. Duela 16 urte galdu zuen Daniel senarrarekin, 2 seme eta 3 alaba ukan dituzte, Alfred, Maddi, Leon, Jacqueline eta Ana Mari.

Katixa zenaren ehorzketak joan den astelehen arratsaldean iragan dira Aiherrako elizan. Haurrer, arra haurrer eta familiako guziera, gure doluminak.

Antzuolako pestak, ortzegunetik igandera

Inma Beristain Antzuolako auzapez andere berriaren bitartez jakiten dugu Antzuolako pestek, joan den igandean txirindulari lehiaketa batekin hasirik, aste hontan ortzegunetik igandera segitzen dutela egitarau edo programa aberats eta bete batekin : bazkari, dantzaldi, pilota partida, musikal-

di, kontzertu, hots denetarik daukete eskaintzen. Halere gonbita berezia egiten daukute larunbat arratsaldeko 7tako, orduan baita hasiko « Mairuaren alardea », herri guzia dantzari ta zaldien gibeletik, karrketan barna ibiliko baita, usaiaiko ohidurari jarraituz. Beste ohidura bat, berezia, herriko kontseilariak elgarrekin emanen dute dantza bat musikariez lagundurik, ortzegun hontan, 19:45tan. Ongi etorri guziera !



Antzuolako lagun batzu janari prestatzen ari

Aiherra Herria du 21 juillet 11

Pesta komitearen « rafting » eta afari - Joan den urtean, Irulegiko Irratiak udan antolatzen duen sokatira lehiaketaren finala ereman zuten Aihertar gazteak, Itsasuar gazteeri nagusiturik. Ondorioz, Errobi ibaian, unti berezi batzuetan ibiltzeko parada, ibaieritzeko arrokak kilikatuz, berdin urera untzia eta barnekoak uxkailiz, irabazi zuten. Joan den larunbatean dira sari huntaz gozatu. Hogeit bat ziren arratsalde goxo bainan akigarri bat, Errobi

ibaian, Bidarra aldean iragan dute-nak. Arratsaldea, hango ostatu batek zerbitzatu apairu on batekin bururatu dute, orroitzapenez betetarik. Bixtan da, Bidarraiko pestak izanez, Txakun taldearen ikustera joan gabe ez zirela egoiten ahal... Jakin dugunaz, kantu asko eman omen dituzte afari denboran, eta giro ona nagusi zuten. Biba zuek, eta segi luzaz molde be-rean.

Aiherra Herria du 28 juillet 11

Heriotze : Cécile Verdejo

Apairi auzoguneko Cécile Verdejo ama familiako gaztea, 41 urte baizik ez zituelarik zendu da. Ehorzketak Akamarreko elizan iragan dira joan den ostiral arratsaldean. Zernahi lagun, adixkide, hots gazteek nahi izan diote azken agur bat egin. Gelditzen diren Jerome Errecart bizilagunari, Iban eta Lola 8 eta 4 urtetako seme alaber, etxeko eta familiakoeri, gure dolumin bizienak.

Kebeketik : Jamatit Durrutyren heriotzea



Jamatit Durruty zena, joan den maiatzean Aiherran hartu argazkia, bakantzetan homon gaindi zenean

Berrikitan gure artean hilabete bat bakantza pasatu zuen Jamatit Durruty herritarren heriotze abisua jakiten dugu. Joan den ostiral goizean, bere etxan aurkitu dute zendua.

85 urte zituen. 24 urte zituelarik joan zen Ameriketara lanera, eta Kebeken egin du bizia, Rimouski herrian, Trois Pistoles herri ezagunetik ez hain urrun. Eskualde hortako euskaldun bakarra baitzen, azken 2 urteetan Ezpeletatik joan musikariek eta dantzariak agerraldi bat egin diote, jakinik han zela. Holakoetan plazer egiten baitute euskaldunen bisitek !!

Alargundua zen eta, haurrik ez zuen. Haatik, emazte zenaren familiakoek ongi inguratua zen. Prosper Durruty anaiaren ebexen zelarik joan den maiatzean, forma gaitzean aurkitu ginuen. Arras kontent gibelera joan zen, familiako eta lagun gu-

ziak ikusi baitzuten. Rimouskiko elizan iraganen dira Jamatit zenaren ehorzketak. Familiak meza bat emanaraziko du, agorrilaren 7an, 10ak 1/2tan Aiherrako elizan. Dolumin bizienak.

Buruilaren 4ean, kermeza

Helduden irailaren 4ean iraganen da Aiherrako kermeza. Arduradunak hasiak dira egun horren antolatzen eta zonbeit berritasun hitzemaiten dauz-kigute, berantxago jakin araziko dauzkizuegunak. Anartean, oroit zozketako txartelak orain beretik salgai direla. Hauen saltzailei egin ongi etorri !!

Larunbatean, Erketa auzogun-nea pestan !

Erketa auzogunearan zikiro pesta iraganen da uztailearen 30ean, ibiakoitzean, ihiztarien kaiolan eguerditik goiti. Izenak eman behar ziren uztailearen 26eko, Jamatit Duhalde-ri 0559294762 edo 0630334705ra dei eginez. Izena oraindik emana ez dutenek, ahal bezain laster dei dezatela, arratseko 8etarik goiti. Etorri gustian zuen umore onarekin Erketako zikiro pestara !

Gaztenak batasunaren abisua

Nathalie Legleye herritarrek jakinarazten dauku "Gaztenak" elkartearen izenean (kirolari hurbilketa egiten du 4 eta 9 urte arteko gazteentzat) animazio bat ostiralean uztailearen 29an antolatzen duela. Hazparneko igerilekuan arratsalde apaleko 7ak 1/2tan. Hor haragia errerik jaten ahal da, eta dantza zonbeit emaiten ahalko DJ animatzaile bati esker. Sartzea urrik izanki eta, ongi etorri deneri !

Ayherre.com web gunean,

2011ko pesten argazkiak Aiherrako 2011ko herriko pesten argazkiak, Ayherre.com webgunean ikus daitazke orain beretik. Horra beraz hor oroitzen bat, aurtengo pestetaz. 110 bat argazki aurkitzen dira, nor nahik ikus dezazkeenak. Joan ikus-tera, balio baitu !